

LEZO

Herri Eskola

3. ZIKLOKO
HAURREN
EZAUGARRIAK

Agur, guraso horiek

Ondoan duzuen txosten honetan heziketako etapa honetan haurrek dituzten ezaugarriak bildu ditugu. Txostenaren helburua gure lanean ezinbestekoa den informazioa zuei helaraztea da, zuen seme-alabak hobeto ezagutzeko bidean gida bezala erabil dezazuen.

Dena den, zera hartu behar dugu kontuan: haur guztiek ez dute garapen prozesuan erritmo berdina eramaten eta honengatik denek ez dituzte hemen azaltzen diren ezaugarriak aldi berean betetzen. Txosten hau irakurri eta gero kezkaren bat sortzen bazaizue, ez izan zalantzarik guregana jotzeko.

Zuen seme-alaben heziketan baliagarria izatea espero dugu.

HIRUGARREN ZIKLOKO HAURRAK

- Haurtzaroaren eta pubertaroaren arteko etapa da; hala ere, denak ez dira etapa horretara era berean heltzen. Bizitzaren arauak korapilatu egiten dira eta tentsioak sortuko dizkiete. Beraien banakotasunaz jabetzen dira. Bere emozioak aldakorak dira eta bere egoera animikoa duda-mudakoa izaten da. Sentimendu guztiak uztartzeko zailtasunak izaten dituzte, esaterako, maitasuna eta gorrotoa aldi berean sentitzea. Justiziaz eta berdintasunez kezkatzen dira. Familian eta munduan gertatzen diren bidegabekeriaz konturatzen dira.



- Bere kasa pentsatzen, bere erabakiak hartzen eta bere gurasoek eta irakasleek esaten dutena (aginduak eta arauak) zalantzan jartzen hasten dira. Eguneroko gauzak eta familiaren ingurukoak errazago kritikatzeko dituzte. Pertsona heldu baten antzera tratatzea nahi dute. Zailtasun eta adiskidetasun berriek gurasoengandik bereiziko dituzte independenteagoak eginez. Hala ere, gurasoen laguntza behar dute eta hortxe daudela sentitu behar dute, bere autonomia nabarmendu nahi badute ere.

- Adiskide talde baten partaideak izaten hasten dira, eta taldean egoteko eta familiaren menpe egoteari uzteko beharra sentituko dute, tentsioak, presioa eta ahalmen berriak sortuz. Taldean gauzak egiteko gogo sortuko zaie eta harremanetan sortzaileak izan daitezke. Zaletasunek eta denbora-pasagarriek emozio-heldutasuna lortzeko espazioa eskaintzen dute, baina komunikaziorako oztopoa izan daitezke.



- Aldaketa psikologikoak eta fisiologikoak hasten dira, neskengan lehenago. Bere gaitasunak eta gainerakoien gaitasunak ezagutzen dituzte. Bai buruz eta bai soinez gauza gehiago ondo eta zailtasun gabe egiteko gai dira. Buru-trebetasuna behar duten arazoei tentsioak sortuko dizkiete. Irakurtzea gozamina izan daiteke, irakurtzen dutena egokia ote den kezka sortzen bada ere.


- Neska edo mutila izatearen kontzientziaz jabetzen hasten dira. Sexu-gaiei txantxen eta barreen bidez heltzen diete taldean. Mutikoak "askojakinak" eta neskez kezkatuko ez balira bezala azaltzen dira; neskak, aldiz, helduagoak izaten dira. Bere barneko aldaketez liluratzen dira eta interesa erakusten dute. Mutikoak, hitzez azaltzen ez badute ere, aldaketengatik kezkatuak daude. Neskek, berriz, aldaketak ezagutzen dituzte baina pentsamendutik urruti utzi nahi dituzte. Informazioa jaso eta prestatu egon arren, hilekoaren lehen esperientziak ustekabean harrapa ditzake neskak.



- Etapa honetan pentsatzeko modua aldatzen da eta gogoeta egiten eta argudioak ematen hasten dira, era abstraktoago batez pentsatzeko gaitasuna landuz. Bere burua hobeto ezagutzen dute. Bere pentsamenduaren inguruan pentsatzeko gai izaten da. Badakite arrakasta-eremuak eta ezgaitasun-eremuak dituztela.

- Eskolan programak teorikoagoak eta abstraktoagoak izaten dira eta batzuek hauetara moldatzeko zailtasunak izaten dituzte. Ikasle guztiek presio handia jasaten dute. Erronka handiekin topo egingo dute. Gelako ekintzak ageriko proba eta azterketetara bideratuko dira. Bere porrota gurasoengan islatzen da, presio handia sortuz. Eskolalanaren izaera aldatzen da eta hurrei askoz independenteagoak izan daitezela eta batez ere etxean lan egin dezatela eskatzen zaie. Haur batzuegan arreta edo buru-kontzentrazio falta nabaria da, gehien bat eskolako lanarekin zerikusirik ez duten gauzek kezkatzen baitituzte.

- Talde baten kidea izateagatik jasan behar duten presioa handia da, posizio segurua eta onartua izatea bilatzen dutela. Haur batzuk ez dira adiskidetasunari eusteko gai eta leialtasunen jokoan nahasten saiatuko dira. Desberdintasun sozialak eta kulturalak antzematen dituzte.




- Neska-mutilen eskaerei kasurik ez egitea zaila izaten da, batez ere, jasaten duten presioagatik. Haur batek lagun bat erabiltzen duen edo bera erbilia den ikustea ez da erraza, hortaz, adi egon behar da.




- Galderak konplexuagoak dira eta familiaren barruan gauza guztietaz eztabaidatzeko tokia izatea eta erantzutea komeni da. Haurren ikuspuntua entzun eta bere neurrian baloratu behar da. Nahaspilatsuak izan arren, bere ideiak adierazten hasten dira, honengatik gurasoek hurrei hitz egiten utzi behar diete, beraiekin tonu egiazale eta adiskidetsuaz mintzatuz. Familiek gatazkak konpontzen laguntzea garrantzitsua da, hurrek bere gurasoak behar baitituzte. Beraz, gurasoek hurrei irtenbideak bilatzen lagundu behar diete eta behar dutenean babesa eskaini behar diete gurasoek. Gero eta autonomoagoak badira ere, gurasoak beraiegangandik gertu daudela, edo behintzat beraiegan pentsatzen ari direla, beraiek zaintzen dituztela jakin behar dute.

- Adin honetan garrantzi handikoa da haurrak aldaketa fisikoez ondo informatuak egotea; honengatik gurasoek informazio zuzena eman beharko liekete. Hazteak zailtasunak dituzenez, ohitura onak (ondo jan, ondo lo egin, higinea, antolamendua...) bereganatzen lagundu behar zaie.



- Etxeko lanen helburua haurrek era independentean lan egitea da, beraz, gurasoek, bere lana egiten dutela ziurtatzeko, nolabaiteko urrutiko zaintza eduki eta interesa erakutsi behar dute. Hala ere, haur batzuek antolatze laguntza behar dute.



LEZO

Herri Eskola

**CARACTERÍSTICAS
DE L@S NIÑ@S
DEL TERCER CICLO**

Estimad@s madres y padres

En el trabajo que se acompaña hemos reunido las características de l@s niñ@s de esta etapa educativa. El objetivo de este trabajo es haceros llegar una información que en nuestra labor nos es imprescindible, con el fin de que os sirva de guía para el mejor conocimiento de vustr@s hij@s.

De todas formas, hay que tener en cuenta que no tod@s l@s niñ@s llevan igual ritmo en el proceso de desarrollo y por ello no tod@s reúnen al mismo tiempo las mismas características que aquí se indican. Si una vez leído este trabajo os surge alguna cuestión, no dudéis en dirigiros a nosotr@s.

Esperamos que este trabajo os sea de utilidad en la educación de vustr@s hij@s.


LOS NIÑOS DEL TERCER CICLO

- Es una etapa intermedia entre la niñez y la pubertad; sin embargo, tod@s no llegan del mismo modo a esta etapa. Las normas de la vida se complican y les crearán tensiones. Son conscientes de su individualidad. Sus emociones son variables y su situación anímica es oscilante. Tienen dificultades para complementar todos sus sentimientos, por ejemplo, sentir al mismo tiempo amor y odio. Se preocupan por la justicia y la igualdad. Se dan cuenta de las injusticias que se dan en la familia y en el mundo.



- Empiezan a pensar por sí sol@s, a tomar sus decisiones y a poner en duda lo que les dicen l@s madres/padres y profesores (órdenes y normas). Critican más fácilmente las cosas diarias y concernientes a la familia. Quieren que se les trate como a una persona adulta. Las nuevas aficiones y amistades l@s alejarán de l@s madres/padres haciéndoles más independientes. Sin embargo, necesitan el apoyo de l@s madres/padres y sentir que están ahí, aunque quieran hacer notar su autonomía.

- Empiezan a ser miembros de un grupo de amig@s, por lo que sentirán necesidad de estar en el grupo y de dejar de depender de la familia, lo que les creará tensiones, más presión y también nuevas capacidades. Tendrán ganas de hacer cosas en grupo y pueden ser creativ@s en las relaciones. Las aficiones y los pasatiempos ofrecen un espacio para lograr la madurez emocional, pero pueden ser un obstáculo para la comunicación.



- Empiezan los cambios psicológicos y fisiológicos, en las niñas antes. Conocen sus capacidades y las capacidades de l@s demás. Son capaces de hacer más cosas bien y sin dificultades con su cuerpo y con su mente. Las cuestiones que requieren habilidad mental les crearán tensiones. La lectura puede ser un placer, aunque nos preocupe si es adecuado lo que leen.

- Empiezan a ser conscientes del ser chico o chica. En grupo tocan los temas sexuales por medio de bromas y risas. Los chicos se muestran como "sabelotodo" y como que no se preocupan de las chicas; las chicas, por el contrario, suelen ser más maduras. Se asombran y muestran interés por sus cambios internos. Los chicos, aunque no lo dicen, se preocupan por los cambios. Las chicas, sin embargo, conocen dichos cambios, pero quieren mantenerlos fuera de su pensamiento. A pesar de haber recibido información y de estar preparadas, la primera experiencia de la menstruación puede sorprender a las chicas.



- En esta etapa cambia el modo de pensar y empiezan a reflexionar y razonar, desarrollando la capacidad de pensar de una manera más abstracta. Se conocen mejor a sí mism@. Son capaces de pensar sobre su propio pensamiento. Saben que tienen unos campos de éxito y otros campos de incapacidades.

- Los programas de la escuela son más teóricos y abstractos y algun@s niñ@s tienen dificultades para adaptarse a ellos. Tod@s l@s alumn@s sufren una gran presión. Se encuentran con grandes retos. Las actividades del aula se encaminan a pruebas y exámenes visibles. Sus fracasos se transmiten a l@s madres/padres, dando origen a grandes presiones. El carácter del trabajo escolar cambia y se le pide a l@s niñ@s que sean más independientes y, sobre todo, que trabajen en casa. En algun@s niñ@s se nota la falta de atención y de concentración mental, fundamentalmente porque hay otras cosas que no tienen que ver con la escuela que les están preocupando más.



- La presión que tienen que sufrir por ser miembro de un grupo es muy grande, ya que buscan una posición segura y ser aceptado. Algun@s niñ@s no son capaces de mantener una amistad e intentarán mezclarse en el juego de las lealtades. Perciben claramente las desigualdades sociales y culturales.

- Es muy difícil no hacer caso a las pretensiones de l@s niñ@s, sobre todo, viendo la presión que están sufriendo. No es fácil ver si un/una niñ@ está utilizando a un amig@ o si él/ella es el utilizad@, por ello, hay que estar muy atent@s.



- Las preguntas son más complejas y conviene que la familia sea el lugar donde se debata sobre todas las cosas y donde se les dé respuesta. Hay que escuchar y valorar en su medida el punto de vista de l@s niñ@s. Empiezan a exponer sus ideas, aunque sea de una forma confusa, por eso l@s madres/padres tienen que dejarles explicarse, hablando con ell@s en un tono sincero y amistoso. Es muy importante que la familia ayude a solucionar los conflictos, pues l@s niñ@s necesitan a sus madres/padres. Por ello, est@s tienen que ayudarles a encontrar las soluciones y ofrecerles su apoyo cuando lo necesiten. Aunque son cada vez más autónom@s, tienen que saber que l@s madres/padres están cerca de ell@s o por lo menos que piensan en ell@s, que les están protegiendo.

- A esta edad es muy importante que l@s niñ@s estén bien informad@s de los cambios físicos; por eso l@s madres/padres les tienen que dar una información adecuada. El crecimiento conlleva dificultades y hay que ayudarles a adquirir buenas costumbres (comer bien, dormir bien, higiene, organización...).



- El objetivo de los deberes para casa es que l@s niñ@s trabajen más independientemente; por lo tanto, l@s madres y padres tienen que demostrar interés y mantener cierta distancia, para asegurar que hacen sus trabajos. Sin embargo algun@s niñ@s necesitan ayuda para organizarse.